Eguneraketa
2019/01/31
Actualización

# §B9

# LEY 3/1989, DE 30 DE MAYO, DE ARMONIZACIÓN, COORDINACIÓN Y COLABORACIÓN FISCAL

# MAIATZAREN 30EKO 3/1989 LEGEA, ZERGAPIDEEN ELKAREGOKITASUN, ERAKIDETASUN ETA LANKIDETASUNEKOA

# LEY 3/1989, DE 30 DE MAYO, DE ARMONIZACIÓN, COORDINACIÓN Y COLABORACIÓN FISCAL

(BOPV nº 109, de 9 de junio de 1989)

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La necesidad de proceder a la armonización, así como a la coordinación y colaboración en el ámbito de las relaciones tributarias en lo que respecta a las instituciones competentes de los territorios históricos se puso de manifiesto desde la propia aprobación del Estatuto. Esta necesidad se tradujo en la práctica en unas relaciones estrechas entre las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las instituciones competentes de los Territorios Históricos. Se puede decir, pues, que estas labores se han venido realizando por la vía práctica, lo que ha permitido avanzar por el camino de la configuración de unas relaciones estables que venían propiciadas por el espíritu de colaboración de las Instituciones afectadas.

Se ha recorrido asimismo un camino, el de estos primeros años, que ha venido poniendo de manifiesto las dificultades para articular la armonización y la coordinación, dentro de ese espíritu general de colaboración. Asimismo la experiencia acumulada permite abordar en estos momentos la articulación legal del marco en que deben desenvolverse con las suficientes garantías de éxito como para propiciar una regulación ajustada a las necesidades concretas de la Comunidad.

Ha llegado así el momento adecuado para materializar el mandato recogido en este ámbito en las sucesivas leyes que han ido configurando el entramado legal de nuestro país.

Por un lado el artículo 41.2.a) del Estatuto de Autonomía señala cómo las instituciones competentes de los territorios históricos podrán mantener, establecer y regular dentro de su territorio, el régimen tributario, atendiendo a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma.

Asimismo la ley de Concierto Económico en su artículo 3.1.4 establece como uno de los principios del sistema tributario de los territorios históricos la coordinación, armonización fiscal y colaboración entre las instituciones de los territorios históricos según las normas que, a tal efecto, dicte el Parlamento Vasco.

La ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, también conocida como Ley de Territorios Históricos, recoge en su artículo 14 apartado 3 estos dos elementos a los que hace referencia de forma permanente. Por un lado la necesidad de que las disposiciones que dicten los órganos forales competentes, en el ejercicio de la potestad normativa reconocida en el Con-

# MAIATZAREN 30EKO 3/1989 LEGEA, ZERGAPIDEEN ELKAR-EGOKITASUN, ERAKIDETASUN ETA LANKIDETASUNEKOA

(109 zenbakidun EHAA, 1989.eko ekainaren 9koa)

## ZIOEN ADIERAZPENA

Estatutua onartu zenetik argi gelditu zen kondaira lurraldeetako erakunde eskudunei dagokienez zergapidetza harremanen eremuan elkar-egokitasuna, erakidetasuna eta lankidetasuna lortzeko premia zegoela. Premia horren ondorioz, aribidez, Euskadiko Autonomi Elkarte osorako erakundeen eta kondaira lurraldeetako erakunde eskudunen arteko harreman hestuak sortu ziren. Horrela bada, lan horiek egiatan egin izan direla esan daiteke. Eta horrek bidea zabaldu du harreman iraunkorrak eratzeko, aurretik ere doakien Erakundeen arteko lankidetasun gogoak erraztuak zeudelarik.

Hasierako urte hauetan ere aurrera egin da, eta hor elkar-egokitasuna eta erakidetasuna lankidetasun-giro orokorraren barnean egokitzeko dauden arazoak agerian geratzen joan dira. Halaber, orain arteko azturak, gaur egun, arrakasta izateko nahiko bermez, bete behar duten esparrua Elkartearen premia zehatzei egokitutako araupidea eskaintzeko moduan legez araupetzeari heltzeko aukera ematen da.

Horrela, bada, gure Herriko legebidezko sarea osatzen joan diren bata-bestearen ondorengo Legeek arlo honetan emandako agindua betetzeko une egokia da hau.

Alde batetik, Autonomia Estatutuko 41.2.a) atalean aipatzen da, Kondaira Lurraldeetako Erakunde eskudunek, bere lurraldeetan, zerga-jaurpideari eutsi, hori ezarri eta arautu ahal izango dutela, Itunean bertan Estatuarekiko agertzen diren erakidetasun, zergapidezko elkar-egokitasun eta lankidetasun arauekin bat etorriz; baita Eusko Legebiltzarrak helburu berekin Autonomia Elkarterako emandakoekin ere.

Halaber, Ekonomi Itunearen legeak, 3.1.4 atalean, Kondaira Lurraldeen Zerga-Sistemaren oinarritakotzat hartzen du Kondaira Lurraldeetako Erakundeen arteko erakidetasuna, zergapidezko elkar-egokitasuna eta lankidetasuna, horretako Eusko Legebiltzarrak eman ditzan legeekin bat etorriz.

Autonomi Elkarte Osorako Erakundeen eta horko Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko Harremanei buruzko legeak, Kondaira Lurraldeetako Lege izenez ere ezagutzen denak, bere 14. ataleko 3. zatian, eten gabe aipatzen dituen bi alderdi hauek jasotzen ditu. Batetik, Ekonomi Itunean aitortutako arauak emateko ahalmenaz baliatuz, Foru Erakunde eskudunek eman ditzaten manuek zerga ezberdinen funtsezko gaiak era

cierto Económico, regulen de modo uniforme los elementos sustanciales de los distintos impuestos. Por otro la previsión de que el Parlamento Vasco proceda al desarrollo de las normas de armonización fiscal, coordinación y colaboración entre los territorios históricos.

Se pone pues de manifiesto la necesidad práctica de abordar esta materia dando así cumplimiento, a su vez, a las previsiones legales contenidas en las diferentes leyes que han ido configurando, por otra parte, el entramado institucional de la Comunidad Autónoma. También se pone de manifiesto otro hecho fundamental a los efectos de la regulación en este campo, cual es el de la necesidad de que dichas normas sean dictadas por el Parlamento Vasco.

Como se puede fácilmente apreciar cabían dos formas de abordar esta materia. Una de ellas la de regular todos y cada uno de los aspectos llegando en una sola Ley a la regulación concreta y expresa de todas las materias susceptibles de ser recogidas en la normativa a desarrollar. La otra fórmula alternativa consiste en la elaboración de una ley marco para el posterior desarrollo de los aspectos más concretos y específicos.

La necesidad de abordar el tema de manera delicada y respetuosa con las competencias de las diferentes instituciones, así como la búsqueda de un mecanismo ágil y adaptable a la propia dinámica de la normativa tributaria ha aconsejado la adopción de la vía de una ley marco como fórmula más idónea para abordar con garantías este proceso de armonización, coordinación y colaboración.

Si entendemos la colaboración como la acción por la cual se obra juntamente con otros para la consecución de un mismo fin y la coordinación como la manera de concertar esfuerzos para una acción común coincidiremos en que no hay mayor dificultad en articular estos procesos que la que se derive de la materialización de los mismos. Son pues procesos que en sí mismos denotan una unidad de objetivos a alcanzar.

Más difícil de definir con precisión puede ser lo que se entienda por armonización, en la medida en que el alcance de la misma es ciertamente complicado de precisar pudiendo llegar, en última instancia, al propio concepto de uniformización.

Conviene dejar claro que en materia de armonización no se trata de alcanzar la misma por la vía de la uniformización de toda la normativa que deba emanar de los órganos competentes de los territorios históricos en materia tributaria. No se trata pues de evitar toda posibilidad de diferenciación de un sistema tributario con otro, sino de establecer las líneas básicas por las que se deben desenvolver los mismos.

Que el sistema tributario establecido en los territorios históricos se caracterice por el acorde entre las partes que configuran un único todo, debe entenderse como la aspiración fundamental de esta ley. Ahora bien, ello no debe llevar a utilizar el mecanismo de uniformización como herramienta exclusiva de armonización.

Los objetivos que básicamente pretende alcanzar esta ley son los siguientes:

bateratuz arautu beharra. Bestetik, Eusko Legebiltzarrak Kondaira Lurraldeen arteko zergapidezko elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunerako arauak osabideratuko dituela ohartematen da.

Argi dago, bada, gai honi heltzeko benetako premia; horrela, bide batez, Autonomi Elkartearen legebidezko sarea osotzen joan diren lege ezberdinetako lege-aldetikako aintzin-oharpideak betetzen dira. Eremu araupetzeko funtsezkoa den beste alderdi bat ere nabari da, arau horiek Eusko Legebiltzarrak emanak izan behar dutela, alegia.

Erraz uler daitekeenez, gai honi heltzeko bi bide zeuden. Osabideratu beharreko araupidetzan jasotzearen gai diren alor guztiak Legee bakar baten berariz eta zehazki arautzera iritsiz, alderdi guztiak eta bakoitza arautzean zetzan bat. Aukerako beste bidea, alderdirik zehatzenak eta berarizkoenak geroagoko baten osabideratzeko, esparru-legea egitean datza.

Gai honi heltzean, erakunde ezberdinen aginpideak begirunez eta kontu haundiz hartzeko, eta zerga-araupidetzaren dinamikari berari egokigarri izanezko mekanika bizkorra bilatzeko premiak, elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasun biderapen honi berme osoz heltzeko modurik egokiena esparru-lege bat egitea hobetsi-arazi du.

Lankidetasuna, Helburu bat bera lortzeko beste batzurekin elkar lanean aritzea dela, eta Erakidetasuna ekintza bateratu bat egiteko ahaleginak biltzea dela ulertzen badugu, denok bat etorriko gara hau pentsatzean: biderapen hauek antolatzeko, berauek egiteratzetik sor daitekeen baino zailtasun haundiagorik ez dagoela. Horrela, biderapen hauek, berenez, lortu beharreko helburuen batasuna azaltzen dute.

Elkar-egokitasuntzat zer ulertzen den zehazki adieraztea zailago izan daiteke, horren norainokoa zehaztea benetan korapilotsua den neurrian, azken batean, batasun-irizpidearekin baterakoa izatera iritsi daiteke eta.

Argi utzi behar denez, elkar-egokitasunaren arloan, hori ez da zerga-gaietan kondaira lurraldeetako Erakunde eskudunetatik sortu beharreko araupidetza osoa berdintasunez lortu behar. Ez da, beraz, zerga-erapidetza baten eta bestearen artean ezberdintasunik izateko aukera guztiak eragozteko asmorik, erapidetza horiek aribiderako izan behar dituzten oinarrizko irizpideak finkatu nahi dira baizik.

Lege honen funtsezko guraria, kondaira lurraldeetan ezarritako zerga-erapidetzaren ezaugarria osotasun bakar bat itxuratzen duten zatiekin bat etorrizkoa izatean datzala ulertu behar da. Baina horrek ez gaitu elkar-egokitasunerako tresna bakartzat berdintasun-bideaz baliatzera eraman behar.

Lege honek funtsean lortu nahi dituen xedeak hauek dira:

- Simplificación de los sistemas tributarios de los territorios históricos facilitando el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

- Coordinar las actuaciones conducentes a la represión del fraude fiscal mediante planes conjuntos de inspección e intercambio automático de información entre las Diputaciones Forales del País Vasco.

Armonización de la normativa tributaria, con especial referencia a la relativa a incentivos fiscales.

Para alcanzar estos objetivos dispone la ley el marco de armonización de la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en la medida en que las Instituciones de los Territorios Históricos son titulares de competencia normativa de conformidad con el Concierto Económico. En el Impuesto de Sociedades la ley delimita los aspectos que pueden ser objeto de armonización, señalando como tales a los elementos sustantivos de dicho impuesto, incentivos fiscales y determinación de la Administración competente para exaccionar el impuesto en el caso de entidades que realicen actividades en más de un territorio o para atribuir a las Diputaciones Forales la parte de la cuota del Impuesto que por aplicación de los artículos dieciocho y siguientes del Concierto Económico no corresponda a la Administración del Estado. En cuanto al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados entiende la ley que podrán ser objeto de armonización los elementos sustantivos necesarios para garantizar la aplicación del Impuesto de forma no discriminatoria, evitando asimismo las distorsiones económicas que produce la aplicación de normativa sustancialmente distinta. Por último en los tributos locales se consideran armonizables sus elementos sustantivos.

Así mismo se crea un mecanismo de centralización de cumplimiento de obligaciones fiscales que permitirá a quienes mantienen relaciones tributarias con más de una Administración presentar declaraciones únicas en una de ellas de tal forma que disminuya la presión fiscal indirecta existente en la actualidad.

Quedan fuera del ámbito de esta ley en cuanto a la armonización de su normativa el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y el Impuesto sobre el Patrimonio, por entender que una regulación diferente no producirá distorsiones o cambios de criterio en la asignación de recursos y el Impuesto sobre el Valor Añadido por no tener autonomía normativa.

En relación con las obligaciones formales, plazos y modelos se prevé la armonización de los dos primeros y la facultad del declarante para utilizar los modelos de impresos de cualquiera de los territorios en la presentación de declaraciones ante las Administraciones tributarias del País Vasco, aunque dichos modelos difieran entre sí.

Como ya se ha señalado, regular todas estas materias en una misma Ley no parece apropiado por la constante variación de la normativa tributaria y por la complejidad que entrañaría, por lo que se recurre al mecanismo de Leyes dictadas por el Parlamento que regularán determinados aspectos relativos a uno o varios tributos, lo que hará que las normas de armonización, así como la adaptación de la normativa vigente de los territorios histó-

- Zerga beharkizunak betetzea erosoago eginez, Kondaira lurraldeetako zerga-erapidetzak erraztea.

- Zerga-iruzurra zebatzera bideratutako ekintzak Euskal Herriko Foru Aldundien arteko argibideen bapateko trukaketa eta ikuskaritza-egitamu bateratuen bidez erakidetzea.

Zerga-araupidetzaren elkar-egokitasuna, zergalaritzaren aldetikako hobariei arreta berezia eginez.

Helburu horiek lortzeko, kondaira lurraldeetako erakundeak Ekonomi Itunearen arabera araupidetzarako ahalmenaren jabe diren neurrian, Legeak Norbanakoen Urteko Irabaziekiko Zergarekiko araupidetza erakidetzeko esparrua xedatzen du. Baltzu-Zergari dagokionez legeak zehaztu egiten ditu elkar-egokitasunaren gai izan daitezkeen alderdiak, zerga horren berenezko gaiak eta zergalaritzaren aldetikako hobariak horrelakotzat izendatuz eta, lurralde baten baino gehiagotan iharduten duten baltzuen kasuan, zerga lakatzeko gai den Arduralaritza izendatuz edo, Ekonomi Ituneko hemezortzi eta ondorengo atalak erabiliz, Estatuko Arduralaritzari ez dagokion zerga kopuruaren zatia Foru Aldundiei izendatzeko. Ogasunen Jabe-Aldakuntzarekiko Zergari eta Agirizko Lege-egiketekiko Zergari buruz, legeak, Zerga bereizkeriarik gabe ezarriko dela bermatzeko beharrezko diren funtsezko alderdiak elkar-egokitasunaren gai izan daitezkela uste du; funtsean besterlakoa den araupidetza ezartzeak ekarriko lituzkeen diruzko okerrak aldenduz. Azkenik, toki-mailako zergetan elkar-egokigarritzat hartzen dira horien funtsezko alderdiak.

Era berean, zerga-beharkizunak betetzea zentralizazio bateratzeko tokia sortzen da; horrek zerga-harremanak Arduralaritza batekin baino gehiagokin dituztenek horietako batean aitorpen bakarra aurkezteko bide emango du, gaur egun dagoen zeharkako zerga-saka gutxitzeko bide.

Bere araupidetzaren Elkar-Egokitasunari buruzkoan lege honetatik at gelditzen dira Jarauntsi eta Emaitza-Zerga eta Ondarearekiko Zerga eta, hori, bestelako bestelako araupidetzak, eta bihurdurarik, ez baliabideen izendapenean erizpide aldaketarik sortuko ez duela pentsatzen delako, eta Balio Erantsiaren Zerga, araupidetzarako eskurik ez izateagatik.

Arauzko betebehar, epe eta ereduei gagozkiela, lehenengo biak erakidetza eta aitorpengileak, Euskal Herriko Zerga-Arduralaritzetan aitorpenak egitean, nahiz eta bateko eta besteko ereduak elkarren artean ezberdinak izan, edozein lurraldetako irarki-ereduz baliatu ahal izatea ohartematen da.

Lehen esan denez, gai guzti horiek lege baten arautzeak, zerga araubidean ematen diren etengabeko aldaketak direla eta sortuko lukeen zailtasunagatik, ez dirudi egokia denik. Horregatik, Legebiltzarrak emandako legezko erara jotzen da, zerga baten edo gehiagoren alde zehatzak horiek arautuko dituztelarik; horrela, elkar-egokitasunerako arauak eta kondaira lurraldeetan indarrean dauden araupidetzak mailaz maila joango dira

ricos se vaya aplicando escalonadamente.

Para garantizar que las disposiciones que dicten las instituciones competentes de los territorios históricos se ajusten a lo dispuesto en las normas armonizadoras se establece la emisión de un informe preceptivo por parte del Órgano de Coordinación Tributaria que se crea en la ley, que deberá ser emitido en un tiempo determinado, entendiéndose el silencio como positivo.

Respecto a la coordinación se dispone la confección de planes conjuntos de inspección, sin perjuicio de los propios de cada Diputación Foral que permitan una mejor asignación de recursos personales y materiales para la represión del fraude fiscal, evitando duplicidad de actuaciones o carencia de las mismas en alguno de los territorios. También se determina que las consultas vinculantes deberán ser objeto de informe previo a su evacuación así como de inscripción en un registro creado al efecto con lo que se evitará disparidad de criterios en la aplicación de la normativa.

Las normas que se dictan en cuanto a colaboración son básicamente referidas a la colaboración en materia informática de tal forma que se puedan complementar las normas tendentes a la coordinación.

Para la materialización de estas acciones desde un punto de vista operativo la ley crea un Órgano de Coordinación Tributaria en el que están representados el Gobierno y las Diputaciones, estableciendo su composición y funciones. Este órgano se configura como un elemento clave sobre el que deben pivotar las acciones a desarrollar en este ámbito. Se trata pues de un órgano específico con unas funciones concretas, de manera que pase a formar parte del conjunto de órganos, cada uno con sus funciones propias, que configuran el soporte de la acción operativa en diferentes ámbitos de la Comunidad Autónoma

## Artículo 1.- Ámbito de aplicación de la ley

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 41.2.a) del Estatuto de Autonomía, la presente Ley tiene por objeto:

a) Establecer el marco de armonización del régimen tributario de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para su ulterior desarrollo en futuras leyes del Parlamento Vasco.

b) Dictar normas de coordinación y colaboración entre las Haciendas de los Territorios Históricos en el ejercicio de su gestión tributaria.

CAPÍTULO I

## Artículo 2. Armonización[1]

Las normas tributarias de los Territorios Históricos observarán las normas que en materia de armonización fiscal establezcan las leyes del Parlamento Vasco sobre los aspectos y con el alcance señalados en la presente ley, además de las contenidas en la Ley del Concierto Económico.

egokitzen.

Kondaira-lurraldeetako erakunde eskudunek emandako manuak antolakidetzazko arauetan agindutakoari egokitzen zaizkiola bermatzeko, legean sortzen den Zerga-kidekaketarako Sailak arauzko txostena egin beharko duela agintzen da; hori aldi jakin baten egin beharko da, eta erantzunik eza aldezkotzat ulertuko.

Erakidetasunari buruzkoan, zerga-ebaskeria zebatzeko gizakizko eta gauzazko eskuarte hobeak jartzeko bide emateko, Foru-Aldundi bakoitzak izan ditzakeen bere egitamuen kaltetan gabe, jokabide-aldetikako bikoizkeriak edo Lurraldetakoren baten horietakorik ez izatea eragotziz, ikuskaritza-egitamu bateratuak egitea erabakitzen da. Esaten da, baita ere, eskatzen diren behartze-indarreko argibideei erantzuna eman aurretikako txostenaren gai izan beharko dutela, eta hortarako sortutako erroldean eraso beharko direla. Horrela, erizpideen arteko ezberdintasunak uxatuko dira araubide ezartzean.

Lankidetasunari buruz ematen diren arauak batipat informatika-alorreko lankidetzari buruzkoak dira, erakidetasunera zuzendutako arauak osatu ahal izateko.

Ekintza horiek egite-moduaren aldetik gauzatzeko, legeak Zerga-Kidekaketarako Saila sortzen du eta hor ordezkariak Jaurlaritzak eta Aldundiek dituzte, Sailarenosatze-modua eta eginkizunak zehazten direlarik. Sail hau funtsezko alderdi gisa itxuratzen da eta horren inguruan ibili behar dira eremu honetan garatu beharreko ekintzak. Eginkizun zehatzak dituen sail berezia da hau; horrela Autonomi Elkarteko eremu ezberdinetan ekintza egiterakorraren euskarri diren sailen arteko zati izango da, bakoitzak bere eginkizunak dituelarik.

## Lehenengo Atala.- Legearen ezarpen-eremua

Autonomi Estatutuko 41.2.a) atalean agindutakoarekin bat etorriz, honako xede hau du Lege honek:

a) Eusko Legebiltzarrak aurrerantzean egingo dituen legeen bidez osabideratzeko, Euskadiko Autonomi Elkarteko Kondaira-Lurraldeen zergapidetza-jaurpideak elkarri egokitzeko esparrua ezartzea.

b) Kondaira-lurraldeetako Herriogasuntzak euren zergapidetza-lanetan aritzean erakidetasunez eta elkarrekin batera jokatzeko arauak ematea.

I. ATALBURUA

## 2. Atala. Elkar-egokitasuna[2]

Kondaira-lurraldeetako zerga-arauek, dirubidezko elkar-egokitasunari buruzko gaietan, Ekonomi Ituneko legean daudenez gain, Eusko Legebiltzarreko legeek ezar ditzaten arauak beteko dituzte, lege honetan aipatutako eraginarekin.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco, nº 4/1998, de 6 de marzo (BOPV nº 60, de 30 de marzo de 1998).*
[2] Eusko Legebiltzarraren martxoaren 6ko 1998/4. Legearen araberako idazkera (60. zenbakidun EHAA, 1998.eko martxoaren 30ekoa).

En cumplimiento de lo previsto en el apartado 3 del artículo 14 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, las disposiciones que dicten los Órganos Forales competentes de los territorios históricos, en el ejercicio de la potestad normativa reconocida en el Concierto Económico, regularán de modo uniforme los elementos sustanciales de los distintos impuestos.

Autonomi Elkarte osorako erakundeen eta horko Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 14. atalaren 3. zatian ohartemandakoa betez, Ekonomi Itunean aitortutako arauak emateko aginpidea egiteratzean, kondaira-lurraldeetako foruzko jardute-sail eskudunek eman ditzaketen manuek zerga ezberdinen funtsezko alderdiak era bateratuz arautuko dituzte.

El nivel de armonización alcanzado podrá permitir la existencia de disposiciones normativas diferentes en los territorios históricos, siempre que éstas garanticen una presión fiscal global equivalente en toda la Comunidad Autónoma.

Lortutako elkar-egokitasun mailak kondaira-lurraldeetan araupidetza ezberdinak izatea erraztuko du, beti ere, orokorrean, Autonomi Elkarte osorako zergasaka baliokidea bermatzen badute behintzat.

## Artículo 3.- Aspectos armonizadores con carácter general

Con carácter general, respecto de cualquiera de los tributos incluidos en la ley del Concierto Económico, se armonizarán cuando proceda:

1.- Los criterios de delimitación de las relaciones jurídico-tributarias con las correspondientes Diputaciones Forales, cuando el sujeto pasivo u obligado tributario ejerza actividades que supongan la realización del hecho imponible o el nacimiento de la obligación tributaria en más de un territorio histórico.

2.- Los plazos de presentación de declaraciones y los modelos de autoliquidación, que en todo caso serán válidos para declarar ante cualquiera de las Administraciones de los territorios históricos.

## 3. Atala.- Orokorrean elkar-egokigarri diren alderdiak

Orokorrean, Ekonomi Ituneko legean agertzen diren edozein zergari buruz, egoki izan dadinean elkarri egokituko zaizkio:

1.- Foru-Aldundi bakoitzarekin izan beharreko lege eta zerga-alorreko harremanak zehazteko erizpideak, behartutako zergaduruak betetzen dituen ekintzek zergakizunaren egiterapena edo zergalaritza-zorrak kondaira-lurralde baten baino gehiagotan sortzea dakartenean.

2.- Aitorpenak aurkezteko epeak eta kitapenak egiteko ereduak: hauek, nolanahi ere, aitorpenak edozein kondaira-lurraldetako Arduralaritzatan egiteko baliozkoak izango dira.

## Artículo 4[1]

En relación con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se armonizarán, cuando proceda, los siguientes aspectos:

a) La determinación de los siguientes aspectos sustantivos del Impuesto:

1.- El ámbito de aplicación.

2.- El hecho imponible. En especial, el establecimiento, la supresión y la prórroga de las exenciones, así como la determinación de las rentas no sujetas.

3.- El sujeto pasivo.

4.- La base imponible. En especial:

- El establecimiento de planes especiales y de los coeficientes máximos y mínimos de amortización de los activos afectos al ejercicio de actividades empresariales o profesionales.

## 4. Atala[2]

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, hurrengo alderdi hauek harmonizatuko dira, bidezkoa denean:

a) Zerga horren honako atal hauek zehaztea:

1.- Aplikazio-esparrua.

2.- Egitate zergagarria. Batez ere, salbuespenak ezarri, kendu eta luzatzea, bai eta zergapetu gabeko errentak zehaztea ere.

3.- Subjektu pasiboa.

4.- Zerga-oinarria. Batez ere:

- Plan bereziak ezartzea. Enpresarien eta profesionalen jarduerak burutzeari atxikitako aktiboak amortizatzeko gehienezko eta gutxienezko koefizienteak ezartzea.

[1] *Redactado conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco, nº 4/1998, de 6 de marzo (BOPV nº 60, de 30 de marzo de 1998).*
[2] Eusko Legebiltzarraren martxoaren 6ko 1998/4. Legearen araberako idazkera (60. zenbakidun EHAA, 1998.eko martxoaren 30ekoa).

- Los regímenes de estimación objetiva para la determinación de la renta.

5.- La base liquidable.

6.- La tarifa del Impuesto.

7.- Las deducciones de la cuota.

8.- El devengo.

9.- Las retenciones, ingresos a cuenta y pagos fraccionados.

b) La regularización o actualización de valores de los activos fijos afectos al ejercicio de actividades empresariales o profesionales.

### Artículo 4 bis[1]

En relación con el Impuesto sobre el Patrimonio, se armonizará, cuando proceda, la determinación de los siguientes aspectos sustantivos del Impuesto:

1.- El ámbito de aplicación.

2.- El hecho imponible. En especial, el establecimiento, la supresión y la prórroga de las exenciones.

3.- El sujeto pasivo.

4.- La base imponible.

5.- La base liquidable.

6.- La tarifa del Impuesto.

7.- Las deducciones de la cuota.

8.- El devengo.

### Artículo 5[3]

En relación con el Impuesto sobre Sociedades se armonizarán, cuando proceda, los siguientes aspectos:

a) La determinación de los siguientes aspectos sustantivos del Impuesto:

1.- El ámbito de aplicación.

2.- El hecho imponible. En especial, el establecimiento, la supresión y la prórroga de las exenciones.

3.- El sujeto pasivo.

4.- La base imponible. En especial, el establecimiento de planes especiales y de los coeficientes máximos y mínimos de amortización de los activos.

- Errenta zehazteko estimazio objektiboaren erregimenak.

5.- Likidazio-oinarria.

6.- Zergaren tarifa.

7.- Kuotaren kenketak.

8.- Sortzapena.

9.- Atxikipenak, kontura egindako sarrerak eta zatikako ordainketak.

b) Enpresarien edo profesionalen jarduerak burutzeari atxikitako aktibo finkoen baloreak erregularizatzea edo eguneratzea.

### 4 bis Atala[2]

Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, hurrengo alderdi hauek harmonizatuko dira, bidezkoa denean:

1.- Aplikazio-esparrua.

